
JARRI BIDEAN
Ez itxaron gehiago

BOKAZIOEN ALDE OTOITZ EGITEKO MUNDU JARDUNALDIA ETA MISIO HERRIETAKO BOKAZIOEN JARDUNALDIA 2023

# OTOITZA

Nire ondotik igaro zinen Jesus
eta arrasto sakona utzi duzu nire bizitzan.
Begiratu egin ninduzun, eta zure maitasuna
betiko geratu zen nire bihotzean.
Zurekin ibili nahi dut eta bizi-bizi gainera.
Zu zauden tokira joanez
eta gizadiaren historiaren muina
izaten duzun Zugan egonez;
Zu baitzara mundua mugitzen eta berotzen duen sua,
zure itxaropenarekin, alaitasunarekin
eta eskainitako maitasunarekin.
Zure bizitzaren sakontasunetik
nahi dut nirearentzat erantzun bat aurkitu,
Zuk bakarrik betetzen bainauzu osoki.
Zu bezalakoa izan nahi dut,
eta mundu honetatik on eginez igaro.
Jarrai ezazu, Jesus Jauna, gazteei deitzen!
Mariak, gure Amak, jar gaitzala zure ondoan
Pazkoko ardo berria dastatzeko
eta biziaren jai pozgarrira gizadi osoa gonbidatzeko,
festa horretan prestatu baitiguzu jai-otordua
behartsuekin partekatzeko
eta haientzat jainkozko-laguntza ikusgarri izateko.

CONFERENCIA EPISCOPAL ESPAÑOLA · SERVICIO DE PASTORAL VOCACIONAL · omp Obras Misionales Pontificias · CONFER #pjvconfer · CEDIS
Añastro, 1 · 28033 Madrid
seminarios@conferenciaepiscopal.es